

Galtzagorriak

Ixabel Millet-ek kontatua

Aspaldi-aspaldian, herri txiki baten ondoko baserri batean, Asier eta Amaia bizi ziren. Baserriko lanak handiak ziren. Baina Asierri ez zitzaion batere gustatzen lan egitea. Ez, ez, bat ere ez. Beraz beti kexaka aritzen zen:

- Ai, ene! Teilatua konpondu behar! Ez dut nahi, ez zait lan egitea gustatzen! Beste norbaitek egingo balu, hobe! Ene! Ez dut lan egin nahi...

Egunez egun, lanez lan, beti kexaka.

Behin batean, Pantxikaren ondoko baserrian auzolanera joan ziren herrikoak. Pantxika, emakume jakintsua zen, eta ongi ezagutzen zituen ohitura zaharrak. Beraz, Pantxikak, Asier kexaka entzutean, horrela erran zion:

- Laguntza behar baduzu, nik badakit nola lortu Galtzagorri batzuk. Nahi baduzu...

- Bai! Jakina! -oihukatu zuen Asierrek, poz-pozik.

- Beraz, Baionako dendara joan behar duzu eta nire partez etortzen zarela erran Peiori, hango dendariari. Kutxatxo berezi bat emango dizu.

Erran eta egin. Hurrengo egunean, goiz-goizean jaiki, jarri zaku batean bidaiarako janaria, jantzi mendietako botak, eta ttipi-ttipa Baionarantz abiatu ziren.

Baionara iritsi eta dendara hurbildu ziren. Kas-kas-kas ate jo eta sartu ziren. Peio ikustean, Amaiak esan zion:

- Egun on. Pantxikaren partez gatoz. Gure lanetan laguntzeko zerbait omen duzula erran zigun.

- Jakina baietz! -erantzun zuen Peiok.- Baina kontuz! Nik esaten dizuedana ongi bete beharko duzue, hitzez hitz. Bestela, txarrerako izango da.

Kutxatxo bat erakutsi zien erranez:

- Begira, kutxa honetan lau Galtzagorri daude. Hauek ongi erabiliz gero, laguntza handia emanen dizute. Baina horretarako, beti lanean aritu behar dira, bestela, dena hankaz gora jarriko dizuete. Beti lanean! Bai? Beti zerbaitetan aritu behar dira.

Poz-pozik, Asier eta Amaia Galtzagorriak hartu eta laster batean itzuli ziren baserrira. Iristean gaua zen, eta, lotara joan aitzin, kutxatxo sutondoan utzi zuten, tximiniaren gainean.

Hurrengo egunean, goiz jaiki, eta, mahaian eserita, poliki-poliki ireki zuten kutxatxoa. Eta egia zen, barruan, lau Galtzagorri zeuden, txiki-txikiak, ñimiñoak.

Ateratzean, Galtzagorriak hasi ziren galdezka:

- Egun on deneri! Zer egin behar dugu? Zer egin behar dugu?

Kontent, Asierrek agindu zien:

- Hasteko, etxeko teilatua konpondu behar duzue.

- Ados! Goazen teilatua konpontzera!

Eta lauak joan ziren teilatua konpontzera. Bukatu bezain fite, Asier eta Amaia ikustera joan ziren beste lan bat eskatzera:

- Teilatua konpontzen bukatu dugu. Eta orain, zer egin behar dugu? Zer egin behar dugu?

- Ardiak soroetan bildu. -erran zien Asierrek.

Handik lasterrera, Galtzagorriak berriz etorri galdezka:

- Ardiak biltzen bukatu dugu. Eta orain, zer egin behar dugu? Zer egin behar dugu?

Horrela, Asier eta Amaiak, Galtzagorriei agindu zieten baserrian egin behar ziren lan guztiak: landatu piperrak baratzean, txikitu neguko egurra, eta abar.

Eta, aldiro, behin lana egina, berriz etortzen ziren beste lan baten kerka.

Azkenean, Amaia eta Asierrek ez zekiten zer agindu. Jada, ez zen ezer egiteko! Dena egina zen eta ez zitzaien deus bururatzen.

Baserritarrek lanik ematen ez zietela ikusirik, Galtzagorriak egindako guztia atzeraka desegiten hasi ziren. Asier eta Amaia oihuka ari ziren:

- Geldi, Galtzagorri! Ez hautsi egindako lanak!

Baina Galtzagorriek jarraitzen zuten desegiten... teilatua... ardiak... piperrak... egurra...

Amaiak, hondamendia saihesteko, azkar ari zen pentsatzen. Halako batean, bahe bat hartuz... bahe bat, zer den? Bazina bat zuloz beteta.. Bai? Beraz... Amaiak bahe bat hartuz, Galtzagorriei agindu zien:

- Galtzagorri, hona hemen lan bat. Ontzi hau hartu, zoazte ur bila beheko errekarara, eta bete urez kupela hau... goraino!

- Ados! Goazen ur bila kupela betetzeko.

Galtzagorriak errekarara joan, bahearekin ura hartu eta baserrirantz abiatu ziren. Bidean, jakina, ura zuloetatik ateratzen zen, eta kupelera iristean ez zegoen urik. Behin eta berriz egin zuten bide bera eta bakoitzean gauza bera, kupelera iristean ez zegoen ur tantarik ere bahean.

Beraz, ezin izan zuten agindutako lana egin Et hori, haientzat, izugarria zen!

Azkenean, ahalegin ugari egin ondoren, Galtzagorriek honela erran zien baserritarrei:

- Guk bete ezin dugun zerbait agindu diguzue. Beraz, hemendik alde egingen dugu eta ez gaituzue berriz ikusiko. Inoiz ez!

Eta beste aldera itzuliz, Galtzagorriak mendian desagertu ziren. Geroztik inork ez ditu berriz ikusi.

Bere aldetik, Asierrek pentsatu zuen hobe zela lana berak egitea, kexatu gabe. Eta biziki kontent bizi izan zen horrela. Baita Amaia ere!

Eta hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.